

MATIA
FUNDAZIOA

Proiektu zbk.: 2016/7

Enpresa: **MATIA FUNDAZIOA**

Gaitasunaren kudeaketa: postuen egokitzapen ergonomikoa

Helburua eta aurkezpena: metodologia bat diseinatzea postuak errazago egokitu ahal izateko mugimendua murrizten duten gaitasun-arloko ondorioak egonez gero. Gutxi gorabehera mediku-azterketak egiten dituzten langileen %1-2k murrizketak dituzte, gai izan arren. Duela urte batzuk beste lanpostu batean jartzen ziren, beheragoko mailetakoetan; ondoren, pertsona horiek beren postuan mantentzea erabaki zen, baina zereginak edo funtzioak murriztuz. Bi aukerek arazoak zekartzaten (gainkarga beste kideei, laneko giro txarra zerikusia zuten kideen eta departamentuen artean eta egoera horiek mantendu beharreko epeei buruzko zalantzak). Ikuspegi berria: langileak lan bera egin dezake beste mugimendu batzuk eginaz? Gaitasun murriztuko kasuetarako postuen egokitzapen ergonomikorako metodologia diseinatu da: postua fisioterapeuta batek aztertu ondoren, zuzeneko behaketaren bidez, zereginak eta adierazitako murrizketak aztertzen dira; mugimendu horiek egiten diren zereginak identifikatzen dira eta mugimendu alternatiboak bilatzen dira (laguntza teknikoekin edo gabe) langileak bere lanpostuan jarrai dezan ohi bezala, errekupeazio prozesuan eraginik izan gabe.



Egindako hobekuntzak: metodologia honek ikuspegi aldaketa ere badakar. Ergonomiaren printzipioak erabiliz, langileak bere lanpostuan jarraitu ahal izatea lortzen da, eta erakundeek errazago kudeatu dezakete gaitasuna, murrizketak egonez gero.

Bereizgarriak: langileak lanean ohi bezala jarraitzeko aukera du, bere errekupeazioan eraginik izan gabe; beste kideek ez dute gainkargarik jasan behar erasandako langileak egin ezin dituen lanak egiteagatik, eta antolakuntza- eta prebentzio-arloko kultura berri baten garapena sustatzen du.

Prozesuaren deskribapena: Laneko arriskuen prebentzioak langilearen txostena jasotzen du, gaitasun murriztuarekin. Langilearekin, giza baliabideekin eta DPekin harremanetan jartzen da. Fisioterapeutarekin batera, laneko zentroa ikustera joaten da, eta langilearekin eta haren arduradunarekin elkartzeko dira. Lanak nola egiten diren ikusten da. Fisioterapeutak langilearen mugak eta egin beharreko zereginak aztertzen ditu. Lanpostua ergonomikoki egokitu ote daitekeen ikusten du. Ezin bada, beste postu batean jarriko da, edo zeregin horiek kenduko zaizkio. Ahal bada, lanerako jarraibide berriekin txosten bat egingo da. Txosten hori VSko sendagileari igorriko zaio, dagozkion adierazpenak egin, eta lanpostuaren egokitzapena balioztatu dezan. Laneko arriskuen prebentzioa, giza baliabideak eta arduraduna erasandako langilearekin elkartzeko dira. Txostena pertsonalki azalduko zaio eta kopia bat emanango zaio. Fisioterapeutarekin harremanetan jar daiteke, izan ditzakeen zailtasunak konpontzeko. Aldi baterako egoera dela azaltzen zaio. Jaso izana sinatzen da. Hurrengo segurtasun- eta osasun-batzordean hartutako neurrien berri ematen da. VSk murriztutako gaitasunerako ezarritako aldia amaitutakoan (batez beste 4 hilabete), langilea berriro baloratzen da, eta zeregin guztietarako gai den edo murrizketekin jarraitzen duen ondorioztatzen da. Murrizketekin jarraituz gero, ezarritako jarraibideen arabera egin beharko ditu lanak.

Lortutako emaitzak: lehen, kideek gainkarga, bai eta laneko giro txarra langilearen zerbitzu/zentroen eta departamentuen artean. Ezarri ondoren, erantzuleak laguntza handiagoa sentitzen du, eta gaitasunaren kudeaketa errazten zaio, kideen arteko laneko giroa hobetzen da, langileak bere burua zaintzeko jarraibideak ditu, eta lanean jarrai dezake.